

Auzoz Auzo

Altza-Herrera

Auzo Etxea altzatarren zerbitzura

Urte amaieran eta Larratxo pasealekuan ireki dute Auzo Etxea. Seiehun metro karratu prestatu dituzte auzotarren erabilerako. Etxearen kudeatzaile Donostia Kultura izango da eta kultur etxeak



Argazkia: Imanol Olegi

leku ezagatik bete ezin zituen helburuak hartuko ditu. Elkarrekin badituzte zenbait gela haien tresnak gordetzeko eta Gazteri Sailak ere bertan izango du Altzako egoitza. Honi buruz informazio gutxi izan dutela kexatu dira auzotarrak.

San Jose de Calasanzen 25. urteurrena

Altzatar askoren eskola izandakoak 25 urte egin ditu auzoan. Urteurrena ospatzeko makina bat ekitaldi antolatuta ziren urte hasieran: musika emanaldiak, ipuin kontalaria, pailazoak, bazkaria ikasle eta irakasle ohiekien eta abar.

Iranzo pasealekua berrituta

Felix Iranzo pasealekua berritu eta egokitu dute aurten. Altzatarrentzako mesede izan da, makina bat auzotar biltzen baitira eguzkia hartzeko eta patxadan egoteko.

Aiete

1998ri adio zubia bukatu gabe

Amara eta Ibaeta lotzeko Morlansen eraiki den zubiak asko aldatu du azken auzo honetako paisajea. Zubiak Aieteko trafikoaan ezezik, Donostiakoan ere eragin handia izango du eta azken urteetan egin den obrarik ikusgarrienetakoa da. Aurtengo abuztuan zen irekitzekoa, baina lanak atzeratu egin dira.


Aietek zuen isolamendua sahisteko, duela bi urte

zabaldu zen Aiete-Ibaeta errepidea. Bigarren zatiarekin Amara ere lotuta geratuko da.

Aieterako autobus zerbitzuak ere hobetu egin dira. Tranbia konpainiak Sanserrekara doan 31 zenbakidun autobusa jarri du aurten. Behin Amara-Aiete-Ibaeta errepidea ireki bezain pronto, Altza eta Antiguako 24 eta 27 zenbakia duten autobusak ere auzotik igaroko dira.

Easo abesbatza Araozen

Marañon pasealekuan dagoen Araoz etxea 75 urtez erabiltzeko lagapena egin dio Udalak Easo abesbatzari. Bost urte iraun duen negozioa aurten itxi da. Abesbatzak 100 milioi pezetako inbertsioari aurre egin beharko dio. Fundazio bat sortzea eta musika eskola martxan jarzea dira etorkizunerako erronkak.



Caf. HOSTELERA DEL NORTE



Mikeleteen pasealekua 8 • 20008 DONOSTIA

Tfnoak: (943) 215066 • Faxa: (943) 219608

Angulema kalea 11 • 01004 GASTEIZ

Tfnoak: (945) 258244 eta (945) 289922 • Faxa: (945) 289922

Sarasate musikaria • 48014 Deustua - BILBO

Tfnoak: (94) 4758706 eta (94) 4758707 • Faxa: (94) 4754165

Irunlarrea 61 • 31008 IRUÑEA

Tfnoa: (948) 170023 • Faxa: (948) 172881

COMENDA

FRANKE

FAEMA LAINOX Miele